

### **DIRU ITURRIAK:**

Kontuan izanda gure hozkailua produktu berria dela, prezioa garestia izango du: 2.000€ inguru. Kontuan izanda hozkailu garestiagoak daudela gaur egun merkatuan, erosteko beharra edo nahia dutenak prest egongo dira diru kantitate hori ordaintzeko. Diru gehiago lortzeko, publizitatea egingo dugu: telebistan iragarkiak jarriko ditugu eta sare sozialetan gure produktuaren publizitatea egingo dugu. Gainera, Bosch enpresarekin kolaboratuko dugunez, haiek diru kantitate bat eskainiko digute eta falta den dirua lortzeko bankuan mailegu bat eskatuko dugu.

